

TRATAMENDU FITOSANITARIOAK EGITEKO EKIPOEN MAKINERIAREN ETA ONGIGAILUEN ERREGISTRO OFIZIALA

Ekainaren 19ko 1013/2009 Errege Dekretuak, uztailaren 15eko EAOn argitaratu zenak, ezarri du **derrigorrezkoa** dela produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoak eta ongarriak zabaltzeko ekipoak Nekazaritzako Makinariaren Erregistro Ofizialean (Registro Oficial de Maquinaria Agrícola, R.O.M.A.) inskribatzea.

Zer da Nekazaritzako Makinariaren Erregistro Ofiziala, R.O.M.A.?

ROMA Nekazaritzako Makinariaren Erregistro Ofiziala da, hau da, legez ezarrita dauden kasuetan burutu behar dena. Errege Dekretu berriak erregistratu behar diren ekipoen zerrenda aldarazi du. Bizkaian 6453/09 Foru Agindua, abenduaren 10rekoa, da makina horien inskripzioa erregulatu duena.

Zeintzuk dira erregistratu behar diren makina berriak?

- Arrastaka zein esekita jarduten duten tratamendu fitosanitarioetako ekipoak, makina horien kapazitatea edo pisua gorabehera.
- Motoredun motxila pneumatiko motako tratamendu fitosanitarioetako ekipoak, bolumen ultra baxukoak, eta karretila motako disparagailua duten hidraulikoak.
- Arrastaka zein esekita jarduten duten ongarria zabaltzeko ekipoak, horien kapazitatea edo pisua gorabehera.

R.O.M.A. honek zein motatako makinak ukitzen ditu?

Hala makineria berria nola erabilia den makineria.

Nortzuk erregistratu behar dituzte ekipoak?

- Nekazaritzako ustiatarien titularrek, hala pertsona juridikoen nola fisikoen.
- Nekazaritzako zerbitzuetako enpresek, kasuan kasu egokia den erregistro edo errolda ofizialean inskribatuta daudenek.
- Organismo ofizialek eta nekazaritzako prestakuntza zentroek.



Zein da aurkeztu behar den dokumentazioa?

Makina berriak

- Makinaren titularraren edo errentatzailearen NAN edo IFK.
- Ezaugarrien ziurtagiria, ereduaren arabera, indarreko legeria betetzen duena eta fabrikatzaileak edo horren legezko eskuordeak jaulkita egongo dena.
- Makinaren segurtasunari buruzko CE adostasun aitortpena, indarreko legeriarekin bat etorriko dena.
- Erosketaren faktura edo salerosketa, leasing, renting eta abarren kontratua. Argi adieraziko da makinaren merkataritzako izena (marka eta eredu).
- Nekazaritzako ustiategiaren titularraren, tratamenduetako enpresaren, erakunde ofizialaren edo prestakuntza zentroaren izaera benetakotzea.

Makina erabiliak

- Makinaren titularraren edo errentatzailearen NAN edo IFK.
- Makinaren titularraren aitortpen sinatua. Agiri horretan makina identifikatzeko datuak agertuko dira: marka eta eredu, bastidore zenbakia eta ezaugarri tekniko nagusiak.
- Nekazaritzako ustiategiaren titularraren, tratamenduetako enpresaren, erakunde ofizialaren edo prestakuntza zentroaren izaera benetakotzea.

Non egin behar da erregistroa?

ROMAren inskripzio eskabideak hala Eskualdeetako Nekazaritza Bulegoetan (OCA) nola Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Zerbitzuan aurkez daitezke.

Zein da inskripzioa egiteko dagoen epea?

Makina berriak: Erosi ahala erregistratzen dira.

Makina erabiliak: epea **2011ko uztailaren 11n amaitzen da.**

Informazioa eta kontsultak

Tel: 94 406 68 70; 94 406 68 69; 94 406 6847